

LURDES IRIONDO, EZ GARA ALFERRIK PASAKO

NAIA ARANTZAMENDI

“Beste esku batzuek jasoko dute gure lana, ez gara alferrik pasako, badu bizitzak etorkizun bat, ez da ametsik desegingo”. Euskal kultur-gintzan urte luzez egindako lanari merezitako lekua eman eta Lurdes Iriondoren izena lau haizetara oihukatzeko lana da Inge Mendioroz Ibañez zuzendariak Idoia Garces Aldazabal gidoilariarekin egindako *Lurdes Iriondo, ez gara alferrik pasako* dokumentala.

Euskal kantagintza berriaren aitzindarietako bat izan zen Iriondo. Oholtza errebeldiarako gune gisa ulertu eta, gizartearekin hautsi nahi zuen gazte talde baten indarra baliatuz, Ez Dok Amairuko talde sortzailearen parte izan zen. Baina ez da soilik hori izan, ezta gutxiagorik ere. “Gitarra eskuan hartu eta abesten hasi zen gazteak agure zela herrian euskarazko antzerkiak egiten zituen. Kulturgintza eta euskararen alde lanean zegoela bazekien eta bukaera arte horrela jarraitu zuen”, azaldu du Mendioroz zuzendariak.

Emakumea, euskalduna, abeslaria eta borrokalaria nahitaez. “Duela berrogei urte jada gauzak argi zituen emakume bat zen eta gauzak argi esaten zituen. Herri honen transmisioaren alde lan asko egin zuen emakumea zen”. Euskal kanta-

Benetakotasunetik egindako lanaren aldarria



Lurdes Iriondo, ez gara alferrik pasako dokumentalaren gidoilaria Idoia Garces eta Inge Mendioroz zuzendaria.

PABLO GOMEZ

gintzan erreferente bilakatzeaz gain, sortzaile hitzaren definizio gisa ulertu daiteke Iriondo. Gazte literatura eta antzerkigintza tartean, arlo desberdinen bitartez euskal kulturari egindako ekarpena neurrigabea izan zela erakusten du Mendiorozen bigarren lanak.

Emakume sortzaileari eta egindako lanari merezitako lekua eman diote


Bide erakuslea. Izarra bere garaian, ahaztua ondoren. Erreferenteak eraldaketa sozialerako gako ukaezin dira, eta izan dira, baina horretarako erreferenteak aldarrikatu egin behar dira. Tamalez, gaur gaurkoz ere, emakumeen lana balioan jartzeko, espazio publikoan

beharrezkoa den lekua aldarrikatu beharra eta egindako lana balioan jartzea ezinbesteko da: “Beti esan digute ‘hau horrela izan da eta hori orain arte ez da gertatu’, eta gezurra da. Historia ezagutzen ez badugu aurreratze fiktizio baten itxura dugu”.

Erreferenteak izateko beharraz gain, erreferenteei buruz esaten den horri buruz ere hausnartu dute, nolabait Lurdes Iriondoren irudia erdigunean jarri dute protagonistaren beraren hitzak bide erabiliz. “Bere hitzak ekarri nahi izan dugu, ez gureak jarri. Guk ez dugu ezer asmatu, bere artikulu bateko hitzak ekarri ditugu eta ekarpenik egiten ez dituzten gauzak kanpoan utzi ditugu. Dakiguna, eta Lurdes dena, ekarri nahi izan dugu”.

Itzalpean geratutako emakume sortzailearen ibilbideari merezitako lekua eman eta atzetik datozenen, zein etorri direnen, bidea argitzeko itsasargia piztu dute. “Tristeia bada norberaren memoria ahaztea, zer da orduan guztiona den memoria partez baino ez ematea? Gu guztiok identitate batez ez gabetzea eta itsu itsuan ibiltzera kondenatzea ez bada?”.

GURE KONPROMISOA EUSKARAREKIN ZINEMALDIAN



GARAK eta GAUR8-k
Donostia Zinemaldiarekin elkarlanean,
euskarazko azpidatziekin proiektatutako
filmak babesten dituzte

NUESTRO COMPROMISO CON EL EUSKARA EN EL ZINEMALDIA

GARA y GAUR8 colaboran con Donostia Zinemaldia
patrocinando las proyecciones de películas
con subtítulos en euskara

GARA

GAUR8
mila leiho zabalik